

SOLASEAN

Gaur gure orrialdetara dakargun pertsonaiak aurkezpenik ez du behar euskal kulturaren munduan. Martin Orbe-ri, Udako Euskal Unibertsitateko idazkari ia senpiternoari, hurbildu gatzaizkio magnetofonia eskutan hartuta elkarrizketa luzea eta trinkoa egiteko asmoz..

Elh.-Martin, 10 urte bete dira UEU martxan hasi zenetik, egingo al zenuke urte hauen balantze txiki bat?.

M.O.-Balantzea hasteko, datu erra zenetatik edo gutxienez errazen kuantifika daitezkeenetatik hasiko ginateke. Aurtengoa kontatuz,

10 ekitaldi hauetan 3.500 ikasle eta irakasle pasatu dira UEU-tik. Urte hauetan, baita ere, hainbat sailetako ikastaroak eman dira etengabeko jarraipena izan dutenak, gehienak esango nuke. Beste zenbait tarteka eman dira, hau da, urte batzutan eman eta gero segidarik izan ez dutenak; hauek dira oraingo datu errazenak.

Nahiz eta aportaziotan ere aipatuko dugun, esan beharra dago batez ere, zenbait jende trebatu egin dela UEU-ren bidez, urteko euskal ekintza lanetarako. Halaz ere, askok nire ustez, oraindik badio halako beldur

handi bat euskarari berari, eta nahiz jakintza aldetik nahiko jantzia sentitu, ez da ausartzen jakintza hori euskaraz emateko eta euskaraz lantzeko, hots, zientzia aldetik edo beste alorren batetan dabilzatenak. Eta, noski, jende honi aukera batzuk eskaini behar zaizkio, noizbait lehen beldur hori apur dezaten; eta gero, hortik aurrera, joango dira gero eta gehiago trebatuz eta promozionatuz. Normala da lehen urratsak baldarrak izatea, baina baldar hauetatik hasten ez bagara ez dago inoiz beldur hori gainditzerik. Eta horretarako gure herrian, herri guztietan bezala, konpetibitate antzeko batetan sartuta gaudenez eta nolabait beti kalitatezko gauzak baloratzen direnez gero, jende hau erabat bazterturik gelditzen da, eta beldur hori gainditzeko edo gainditzen hasteko aukera batzuk eman behar dira; zoritxarrez, gure herrian, ez dut uste asko direnik modu honetako aukerak eta alde horretatik uste dut, benetan, UEU-k bere papera bete duela.

Elh.-Askotan, unibertsitatean gaitzango, zenbait irakasle gaitzango digute: zergatik UEU? , orain batez ere hasi bait dira,

asignatura batzuk euskaraz ematen etab. Galdera hau dela eta, zer diozu zuk?

M.O.-Honi buruz, egia dela esango nuke eta pozgarria gainera unibertsitatean, ofizialean nahiz pribatuan, zenbait gauza, kasu batzutan kurtso osoak ere, euskaraz egitea. Esan behar da, horretan UEU-k parte izan duela, hau da, hori ez dela UEU-ren eraginez bakarrik sortu, baina bai UEU-ren eraginez ere.

Alde batetik hau argi dago, eta bestetik aitortu behar da oraindik guzti hori gutxiren gauza bat besterik ez dela, hau da, Euskalerrian dauden unibertsitateak eta fakultateak kontutan harturik, hori gutxi batzutan baizik ez dela egiten oraindik. Egiten den lekutan ere, esango nuke, ahalegin hori eta zuk jakingo duzu nik bezain ongi, sostengarri gutxirekin aurkitzen dela; hau da, nahiz eta hor egon, jende hau nolabait umezurtz bezala sentitzen da, unibertsitateak ez bait dizkie apoiatura osoak ematen. Uste dut, gauzak kanpotik ikusiz behintzat, horrela daudela.

Argi dago pauso hau oso garrantzitsua izan dela euskal kulturari, eta norbaitek esaten zuenez, bere

Elhuyar,8,3,1982

ustez, hori izan dela ikastolak sortu zirenez geroztik eman den pausorik garrantzitsuenetarikoa. Prozesu guzti hau konpara dezakegu, erne berri den landare baten behar dituen mimoekin. Orain guzti honek kobertura eta apoia tura bat behar du eta uste dut UEU-k baduela horretan zereginik. UEU-n jende guzti hori, fakultate desberdinetakoa, biltzen da, eta ematen diren emankizunek aberastu egiten dute hori bera, eta horretarako besterik ez baltz ere, oraindik funtzio oso inportante bat beteko luke. Horretaz gainera, ez bakarrik dagoena zaintzeko, zaindu beharra bait da go, baizik eta, lehen esan dugunez, falta direnetan eragin bat egon dadin eta hori gehituz joan dadin, ito ez dadin, bestela hor egongo litzateke arrisku bat, hau da, guzti hori getto bat bihurtzea, zeren nahiz eta hor egon, oraindik oso gauza txikia da, eta horregatik ikusten dut UEU-k bultzada ona eman behar diola iniziatiba horri.

Elh.- Orduan zure ustez, UEU Unibertsitatearen osagarri eta kitzi katzaille al da?.

M.O.- Ez dakit noraino osagarri, baina beharbada, bai halako ziri-

katzaille esango nuke. Esan behar da unibertsitatean bertan sortu dela horretarako eta itxura denez paper hori bete beharko luke. Antzerako zerbait hor dago euskararentzat sortu den Gabinete tekniko, eta horrek uste dut funtzio bat baduela eta hori errekonozitu behar da, baina oraindik erritmoa nahiko astiroa da. Erritmo hori azkartuz joan behar da eta, alde horretatik. Udako Euskal Unibertsitateak antitesi txiki bat sortzen du eta hau oso interesgarria da nire ustez. Ez bakarrik euskal unibertsitateak, baizik eta hor dauden eta UEU-ren partekide diren beste zenbait ekin-tzek ere badute zeregina oraindik. Egiteko dagoena ikusiz, guzti honen beharra dauka uste dut.

Elh.- Beste alderdi bat badago Unibertsitate/UEU erlazio honetan, eta hau, erakunde mailako erlazio ofiziala da. Zer egin da bide honetan?

M.O.- Galdera honi erantzun aurretik esan behar da erlazio errealak baditugula. UEU-n partekide direnak, unibertsitatean ere partekideak dira, eta beraz, uste dut, hor badagoela elkarrekiko aberastasun bat, hau da, UEU-n egiten direnek badute gero bere fruitua eta emai-

tza unibertsitatean, eta alderantziz unibertsitatean egiten denak baita ere UEU aberasten du.

Beno, pasa gaitezen zuk aipatzen zenituen erlazio ofizialetara. Igaz euskalerriko unibertsitateko erretorearekin hitzegin genuen eta berak oso jarrera ona agertu zuen; horrela, gure aldetik harremanak hasi genituen. UEU-kegin duen aportazio txikia eskaintzen genuen eta hortik abiatuz, halako toki bat edo nolabaiteko lotura bat beharrezkoa zela uste genuen. Dena den, egoera nahiko atipiko batetan gaude eta UEU bera egoera atipiko horren ispilu bat da. Ez dugu argi ikusten non kokatuko litzatekeen hori, hau da, zein figura asmatu beharko litzatekeen horretarako. Eta agian horrexegatik ez dugu gehiegi aurreratu bide hori aurkitzen. Gure aldetik postura berdina mantentzen dugu eta berriro kurtso honetan saiatuko gara ia bideren bat aurkitzen dugun.

Elh.- Hamar urte luze hauetan, du darik gabe UEU-keuskal kulturari eta unibertsitateko munduari aportazio handiak egin dizkio, baina zeintzu izango lirateke zuretzat interesgarrienak edo aipagarrienak?

M.O.- Aportazio handiak, ez dakit noraino handiak diren. Dena den, eta gure egoera hain larria eta behartsua izanez alde guztietatik zerbait aportatu dugu. Niretzako aportazio inportanteenak, lehen esandakoez aparte, hamar urte hauek sortzen duten estilo eta tankera direla esango nuke. Beraz iraupena bera, aportazio bat da. Kontutan hartu behar da unibertsitate oso "ser complejo" bat dela, eta nahiz eta urte batetan oso brilantea izan, ez dakit noraino baliotsua izan litekeen. Era honetan unibertsitateaz seriozki hitzegiteko honelako iraupen eta urteetan frogatutako zerbait behar da.

Kazetariak eta zuk dirudienez, galdera beste modu batera planteatuz, maiz galdetzen duzue "ea zer berri dagoen", eta nire erantzuna, "oso pozgarri izaten dela sail berriak sortzea" izaten da. Honek dinamismo bat dagoela esan nahi du, baina beti berrikerietan ibiliz, bide bat eten egin daiteke. Ezin ibili gara beti inoiz egin ez ditugun gauza berrien bila, gero horrek zer segida edo zer jarraipen edukiko duen pentsatu gabe. Horregatik sail berri bati segida posibilitate bat ikusten diodanean, asko poztutzen naiz; hau da, nirenak.

Elhuyar, 8, 3, 1982

tzat, inportanteena. Orduan sail berri bat aipatzen dugunean, ez dugu egia osoa esaten, zeren eta urteetan zehar halako ekintza txiki batzuk edo jolas sakabana tuak egin dira eta aurten guzti hori hobetu eta gorpuztu egin dugu; horrela, era honetako berri-kuntza guztiak pozgarriak dira. Guzti hau baino pozgarriagoa da, beste zenbait sail, 10, 8 edo 6 urtetan bere orotan jarraitzea.

Bigarren puntu batetan liburuetan egin den aportazioa aipatu nuke. Oso oker ez banago, aurten argitaratu direnekin, ia 80 batetan gabilta. 80-ren artean, zer esanik ez, liburuen katalitateari begiratu, goi-behe handiak egongo dira, baina halaz ere, zenbait liburu onak dira eta unibertsitatean erabiltzen dira edo gutxienez unibertsitateko erdarazko textuen balioki-deak dira.

Asko ez luzatzeko hirugarren aportazio bat ere kontutan hartzekoa izango litzateke, eta nolabait esateko euskal kulturak dituen halako behar soziologiko batzuei erantzutea izan da. Batez ere, zenbait euskal irakaslek tituluak lortzeko, eta beraien metodologia eta didaktika aberas-

teko eman diren ikastaroez ari naiz. Ohartzen gara ez dela hori unibertsitatearen tokia eta egin beharra baina nolabait demanda bat hor dago, eta argi ikusi da Euskaltzaindiak konbokatutako azterketak egon direnean partaideen kopurua igon egin dela. Argi dago, beraz, bezeria bat badagoela, demanda sozial bat dagoela eta ez guk bakarrik, hau beti azpimarratu behar da, baina guk ere zerbait aportatu dugula. Ez dakit zenbat izango diren baina hainbat dira UEU-ren bidez Euskaltzaindiaren tituluak eskuratu dituztenak, eta beraz premia sozial bati erantzuna eman diogu.

Hiru puntu hauekin, uste dut, nahiko markatuta gelditzen dela UEU-ren aportazioa.

Elh.- Esan bezala, badirudi UEU-ren helburuetariko bat jendea formatzea, taldeak eratzea eta nolabait zirikatzeta izan daitekela?

M.O.- Ba bai, hori ez dugu behar bezain ongi azpimarratu eta nik ez dakit hasierako helburua hori zen, baina ia hor finkatu da UEU. Hau frogatzeko ez dago burua asko erabili beharrik.

Hemengo ikastaro aberatsenak

eta finkoenak urtean zeharreko lan talderen batetatik datozenak dira. Aurten bertan badaukagu frogara oso polita lan talde batek zer eragin izaten duen ikusteko; filosofiaren kasua oso kasu argia da. Hain zuzen, hainbat urtez erdi ipurdika ibili izan da filosofia taldea eta igaz azkenean lortu genuen taldea finkatzea. Urtean zehar ilusio handiz ibili dira, baina talde horren gidari edo arduraduna zenak ez behar bat izan zuenez utzi egin behar izan zuen taldearen gidaritza, eta horregatik "pott" eginda gelditu da filosofia taldea eta aurten hemen ez da filosofia ikastarorik eman ahal izan. Hor ikusten da taldearen eragina. Historia sailaren kasua ere hor dugu. Historiariako emankizunetan, historiari-ikastaroak modu batera edo bestera beti eman izan ohi dira; batetik edo besteak beti eman izan ohi ditu klaseak, baina orain bi urtetararte taldea ez zen osatu. Orain bi urte, azkenik, taldea osatu zuten arduradun bat eta 3 azpisail jarritz. Talde hau eratu ondoren, historiari lehena liburua argitaratu da eta gainera urtekaririk bezala jarraitzeko asmoa agertu dute. Adibide hauekin nahiko argi gelditzen da taldeak zirikatzea eta mantentzeak zer garrantzi

duen eta UEU-k horretarako eskaitzen duen aukera.

Elh.- Unibertsitatean gabiltzanok maiz ikusten dugu dikotomia hau: "gaztelera hizkuntzak maila zientifikoa dauka eta, aldiz euskarak ez dauka" Zeozer esango al zenuke honi?

M.O.- Horretaz luze mintzatuko nintzateke. Egia esateko mundu egiten naiz hori horrela planteatzen denean eta arrazoi askorengatik gainera. Hain zuzen, batzuk zerorrek aipatu duzu, askotan badirudi erdarazkoa, besterik gabe, kalitatezkoa dela, eta euskarazkoaren kalitatea aldiz, gutxienez, zailantzan jartzen da, erabat ukatzen ez denean. Honetan, uste dut, guztic esperientziarik badaukagula. Erdaraz gauza oso onak jaso ditugu eta oso kaskarrak ere bai eta aitortu behar dugu euskaraz ere gauza hobek eta ez hain onak egiten direla, noski. Nolabait laburtzeko, zer esango nuke, erabat injustoa dela niretzat, erdararekiko parametro berdinez, euskararen eginkizunak edo emankizunak neurtzea. Eta hori injustoa da alde askotatik. Erabat exigenteak izan behar dugu kalitatearekin eta geroz eta gehiago. Egin daitekeen guztia gutxi izan

go da,baina ezin dugu ahaztu zein abiapuntutatik eta zein egoeratik abiatzen garen,hau da,gure mugata sunak oso kontutan hartu behar di tugu.Hortik abiatuz interpretatu beharko dugu euskararen kalitatea.

Gero beste alde batetik,kalitate neurtzeko kriterio edo erizpide objektibo batzuk behar dira. Nire inpresioa ez da objektiboa , noski,ezin du izan,baina har dezagun gure gizarteak onartuta daukan erizpide objektibo bat.Ez gara sartuko hemen,ongi edo gaizki hartuta dagoen baina kriterioa behintzat hor dago eta hain zuzen tituluen erizpidea da.Erizpide hau objektibotzat hartzen badugu,aurten bertan UEU-ko irakaslegoaren artean 11 doktore izan ditugu eta ez nolanhiko doktoreak,zeren eta horien artean badago bat Euskalerriko Unibertsitateko irakasle adjunto numerarioa dena;bizpahiru UEU hasi zenetik eten gabe aritu direnak,beste hiruzpalau,oraindik oraintsu,euskal unibertsitatean tesiak irakurri eta kalifikazio gorenak jaso dituztenak;beste bat behintzat nik dakidala,doktoradutza Ipar Ameriketara egin duena,beste bat tesia Parisen aurkeztu eta hango ikerketa-zentru batek eskatu dio,ia mesedez,hau bertan hiru urteko lan-kontratu bat izenpetuko lukeen lanean jarraitzeko eta orain beste tesi bat

prestatzen ari da hemen bertan irakurtzeko.Beste bat,datorren urtean,Pariserara hau ere,joango da beste ikerkuntza zentru batetara.Hau doktoreei dagokienez ; lizenziatuak kontutan hartuz,55 lizenziatu egon dira irakasleen artean;azkenik,doktore bat eta 84 lizenziatu kontabilizatu ditugu ikasleen artean.Beraz numeroak egiten baditugu,aurten UEU-n ikasle eta irakasle artean 467 bat izan gara eta konparatzen baditugu irakasle eta ikasle artean zenbat doktore eta lizenziatu dau den,uste dut,gure bisita-txartela ez dela hain murrizta.Ez dut proporziorik atera baina uste dut esan dudan tituluen erizpidearen arabera nahiko proportzio ona ematen duela.Ez dakit zer gehiago esan kalitateari buruz; behar bada errepikatzen ari naiz,baina berriro esango nuke kalitatea lortzeko denbora eta medioak behar direla eta oraindik orain zer medio humanoz eta ekonomiko baliatzen gara euskararen arloan mugitzen garenok?.

Beste alde batetik goi mailako lorpenak beti historiara ohore guztiz pasatzen dira,baina erraz ahazten dugu goi mailako lorpen horretara iritsi aurretik zenbat erdipurdiko egin behar izan diren eta hori uste

dut, oso kontutan hartzekoa dela. Beharbada oraindik kasu askotan euskarazkoetan erdipurdiko pausoak ematen ari gara. Uste dut zerbait egiteko gogo eta garrantia minimo batzuk eskaintzen dituenari, aukera eman behar zaiola. Apustu eta arrisku hori gure gain hartu nahi ez badugu, beti ibiliko gara etengabeko lamentazioetan. Horregatik, arrisku hori jaso egin behar da, bestela ez da go aurrera egiterik. Orain kalitate-maila bat badago baina hori hedatu eta hobeagotu egin behar da eta horretarako apustu hau jasoen egin behar da.

Elh.- *Elkarhizketa honi amaiera ematen hasteko, zuk zeuk nola ikusten duzu UEU-ren etorkizuna?*

M.O.- Etorkizuna ikustea beti arriskugarria da zenbait baldintzaren eragina sor bait daiteke. Dena den gauza batzuk argi ikusten ditut baina argi esan behar da, halaber, guztion lana dela hau. Hemen dagoen irakasle batek esaten zidan hona etorri aurretik, Bilboko unibertsitateak antolatutako jardunaldi erlatibista batetan partaideak izan dela. Han porentzia batzuk kongresu gisa edo, montatu dituztela eta bere ustez zenbait gauza interesgarri izan-

go liratekeela UEU-rako. Beraz, honekin zera esan nahi dut, etorkizuna denon aportazioez ikusi behar dugula. Dena den, UEU-k edo berdin zait beste zerbaitek, euskal kulturaren, euskararen eta unibertsitatearen egoera kontutan hartuz, irauan eta jarraitu egin behar du.

Oraindik asko dago egiteko eta jarraitzen ez bada, eremu honetan galdutako bidea kasu batzutan errekuiperatzea ezinezkoa da. Eta orduan UEU-ren parekide edo baliokide diren UZEI, ELHUYAR etab. ez baleudeke sortu egin beharko lirateke. Izena eta hori gutxiena da, nire ustez erritmo hori azkartzea behar beharrezkoa dugu. Era honetan ez nuke pentsimista izan nahi baina ikusten dut zenbait jende euskararekin eta euskal kulturarekin lehen kezkatua zegoena, konformatu egin dela eta momentu honetan gizarte erdaldun bat montatzen ari gara jende horretaz baliatuz. Guzti hau ez dadin gerta UEU-ren etorkizuna moldatu beharko dugu hemen gauden guztion aportazioz.

Elh.- *Utopiatzat jotzea bada ere geroko unibertsitate euskaldun hipotetiko bat egongo balitz eta*

Elhuyar, 8, 3, 1982

UEU-k zeresanik izango balu horren aurrean, unibertsitate hau UEU edo UEU-ren antzeko zeozer izango al litzateke?

M.O.- Dena den, zuk diozun egoera hipotetiko hori inoiz gertatuko balitz horrek esan nahiko luke jende asko kontzientziatu egin dela. Unibertsitatea zein beste edozein irtenbide herri baten-tzat planteatzean, niretzat behin-tzat nahiz arrazoi historikoak nahiz juridikoak ezer gutxi bali-o dute. Hau da, guk zergatik errebeindikatu edo eskatu behar dugu euskal unibertsitate bat? Historikoki edo juridikoki gure herria euskalduna delako; baina gerta daiteke herri euskalduna erdalduntzea ere. Orduan niretzako korapiloa zera da, zein aukera egiten dugu? hau da, zer nolakoa nahi dugu gure herria, euskalduna, erdalduna, hori da kontua! Baina hau, opzio edo aukera bat da. Auke-ra honen arabera unibertsitatearen euskalduntasuna erabaki behar-ko da. Beraz, zuk aipatu duzun egoera hipotetiko hori, gertatuko balitz aukera hori nahiko argi egin dela adieraziko luke. Egoera horretarako prest egongo ginate-ke gure aportazioa egiteko, baina zorionez guk ez genuke zer esan handirik izango, beharbada dauka-

gun esperientzia aportatu beste-rik ez.

Elh.- Bukatzeko, etorkizunari be-gira, nolako azpiegitura jarriko zenioke UEU-ri aurrera jarraitze-ko?

M.O.- Hasteko eta berriz diot, da-goena mantendu eta orain arte sortu diren taldeak zaindu, aber-astu, jendez gehiago hornitu. Gai-nera, noski, horrez gain azpiegitu-ra ekonomiko normal bat behar-ko genuke, hau da, edozein ekintza prestatzerakoan, nahiz eta txikiak izan, betiko zalantza edo beldur finantziero hau txikiagotu behin-tzat; egitura burokratiko minimo bat ere behar-ko genuke, zeren eta oraindik tokitxo bat ere ez dau-ka eta beste batzuen laguntzaz bizi gara. Agian oso interesgarri litzateke halako zenbait talde-ta-ko arduradunak erdi liberatzea edo antzeko zerbait. Hemen, eta zuk ondo dakizu, zenbait jende mi-la gauzetan sartuta dago eta or-duan ez denboraz eta ez diruz ez da iristen, eta lehen esan duzan egitura ekonomiko hura posible balitz, hori izango litzateke au-rrerakada handi bat. Guzti hori, zer esanik ez, diruarekin lotuta dago eta gaur egun ditugun diru

iturriekin ez dago hori egite-
rik, baina gutxienez hori behar
ko litzateke.

Elh.-Bueno Martin, luze jardun
dugu eta hementxe utziko dugu
gure elkarrizketa. Nire ustez,

UEU-k dituen arazoak, bai epe mo-
tzerakoak eta baita ere luzerakoak
azaldu dira elkarrizketan zehar
eta horixe zen guk bilatzen ge-
nuena. Eskerrik asko Martin, eta
jarrai aurrera

;